

12. ALDIZKARIA 2011

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Zuri gerta dakizuke

Zuri gerta dakizuke

GERTAKARIEN KONTAKETA:

Jokinek salatu du melodien tarifakazio osagarriko zerbitzuan alta ematera animatzen duten SMS mezuak jasotzen ari dela telefono mugikorrean, eta horretarako, "Alta" hitza bidali behar du pantailan azaltzen den telefonora. Jokinen arreta erakartzeko, jakinarazi diote lehenengo melodia dohainik bidaliko diotela.

Jatorri bereko hainbat mezu jaso ondoren, Jokinek erabaki du salaketa bat jartzea Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

Jokinek adierazi du hark ez diola enpresa horri inoiz jakinarazi bere telefono mugikorraren zenbakia eta ez duela inoiz baimenik eman inolako merkataritza-mezu bidaltzeko ere.



ERABAKIA:

Salaketa jaso ondoren, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia aurretiazko ikerketajardunak egiten hasi da salatutako gertakariak ezartzeko; horretarako, honako datu hauek bildu ditu:

- Behar bezala erregistratutako espresaren jardura honako hau da: telefonia mugikorraren eremuan tarifa gehigarriko zenbakien bitartez eskaintzen dituen entretenimendu digitaleko zerbitzuak eta produktuak negoziatzea, merkaturatzea eta saltzea baita horien bitartekari izatea ere.
- Bezeroak erakartzeko sustapenkanpainak egiten dira prentsan eta telebistan, eta horretaz gain, mezu laburrak bidaltzen dira.
- Mezu horien hartzaileen datuak erakundeari aurretik zerbitzuak eskatu dizkiotenen fitxategietatik ateratzen dira.

Erakundearen informazio-sistemetan honako egiaztapen hauek egin dira:

- Enpresaren datuetan kontsumitzaileari bidalitako mezuak, hark erreklamatzeko zituenak, azaltzen dira erregistratuta.
- Ez da inolako erregistrotan azaltzen kontsumitzaileak salatu duen zerbitzua eskatu duenik.

Zuri gerta dakizuke

- Kontsumitzailea, Jokin, ordea, azaltzen da enpresaren erregistroetan, baina enpresa honen aurreko kanpainetako parte-hartzaile gisa, baina datu-base hori erabil daiteke etorkizunean egingo diren sustapenetako datuak lortzeko, eta horrela frogatzen du erabiltzaileak bere garaian sinatu zituen baldintzak onartzen dituela.

Datuak Babesteko Agentziak eskatzailearen ohiko telefono-konpainiari faktura eskatu dio, erabiltzaileak salatutako enpresaren zerbitzuak jaso zituen eguneko faktura, hain zuzen ere, zerbitzu horiek erabili zituela frogatuta baitago.

Salatutako enpresak bidalitako publizitatean egiaztatzen da zerbitzua eskaintzen duen enpresaren datuez eta tarifakazio osagarriko zerbitzua dela adierazten duen informazioaz gain, honako hau azaltzen dela:

“ALTA hitza jarrita mezu bat bidaltzen duzunean Klubean harpidetzen zara. Aldian-aldian mezu bat jasoko duzu zure mugikorrean gure eduki hoberenekin. SMS bakoitzaren kostua 0,30 euro+BEZA da.

Zure telefono-zenbakia fitxategi automatizatu batean sartuko da zuretzat interesgarriak izango diren produktuak eta zerbitzuak aldizka eskaintzeko.

Nolanahi ere, 15/1999 Lege Organikoaren arabera, zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubidea duzu, eta eskubide hori zure mugikorraren telefono-zenbakia eta BAJA hitza jarrita@A2... helbidera posta elektronikoko bat bidaliz bali dezakezu. Adingabea bazara, gogoratu zure gurasoen baimena beharko duzula zure eskaera egin aurretik”.



Enpresak Jokinen baimena zeukan publizitate-alorreko SMS-ak bidaltzeko eta zerbitzuan baja emateko informazioa ematen zuen, Informazio Gizartearen Zerbitzuei buruzko Legearen 21.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.